

OSASUNEKO/ANIMALIATEGIKO

TEKNIKARI ESPEZIALISTA

LAN-POLTSA HANDITZEKO

HAUTAKETA PROZESUA

2016KO APIRILAREN 15EKO ERABAKIA

Probako galderen erantzunak erantzunen orrian markatu behar dira.

Galdera bakoitzeko ERANTZUN BAT BESTERIK EZ da hautatu behar, EGOKIENA (edo osoena) markatuz.

Gaizki erantzundako galderak edo erantzun gabe utzitako galderak EZ dute penalizaziorik.

ERRESERBAKO GALDEREI ere erantzun behar zaie.

1. Hauek EZ dira babes indibidualeko ekipamenduak (BIEak):
 - a. betaurrekoak.
 - b. eskularruak.
 - c. su-itxalgailua.
 - d. maskara.

2. Baieztapen hauetako zein da EGIA?
 - a. 4. taldeko agente biologiko bat gizakiari gaixotasun bat eragiteko probabilitate txikia duena da.
 - b. SDFak (gaztelaniaz, FDS) produktu batek osasunerako, segurtasunerako eta ingurumenerako duen arriskuari buruzko informazioa ematen du.
 - c. Agente mutagenoak hauek dira: arnastu, irentsi edo larruazalean sartuz gero umekian, enbrioi-garapenaren aldiaren, lesioak eragin ditzaketen substantzia eta prestakinak.
 - d. Aurreko guztia egia da.

3. Populazioan modu konstantean agertzen den gaixotasunari honela deritzo:
 - a. Epidemia.
 - b. Pandemia.
 - c. Endemia.
 - d. Aurreko guztia faltsua da.

4. Gaixotasun trasmisigarrien kate epidemiologikoa honela osatuta dago:
 - a. Birusak, bakterioak eta gizakia.
 - b. Infekzio-iturria, transmisio-mekanismoa eta pertsona osasuntsu infektibera.
 - c. Birusak, bakterioak eta onddoak.
 - d. Infekzio-iturria.

5. Zoonosia hau da:
 - a. Animaliei zein gizakiari eragiten dien gaixotasun bat.
 - b. Berez animaliena den gaixotasun bat, gizakira transmiti daitekeena.
 - c. Berez gizakiena den gaixotasun bat, animalietan albo-kalteak eragiten dituena.
 - d. Aurreko guztiak faltsuak dira.

6. Piktoگرامa honek adierazten du substantzia honelakoa dela:

- Erregarria.
- Sukoia.
- Lehergaia.
- Ingurumenerako arriskugarria.



7. Metodo hauetako zein EZ da esterilizaziokoa?

- Izpi ultramoreak.
- Autoklabatzea.
- Iragaztea.
- 70°-ko alkohol etilikoa.

8. *Paziente batek bere osasunari eragiten dion jarduketa bat egin dakion emandako adostasun aske, borondatezko eta kontzientea, bere buru-ahalmen osoaz jokatuz eta informazio egokia jaso ondoren adierazia, dokumentu batean agertua. Zer izen du?:*

- Historia klinikoa.
- Mediku-baimena.
- Konfidentzialtasun-ziurtagiria.
- Baimen informatua.

9. Nazioarteko lehenengo dokumentu arauemaile edo kode etikoa hau izan zen:

- Nurembergeko Kodea.
- Helsinki Deklarazioa.
- Belmont Txostena.
- Cádizko Konstituzio-deklarazioa.

10. Printzipio hauetako zein EZ da oinarrizko printzipio etiko bat?

- On egitearena.
- Kalterik ez egitearena.
- Justiziarena.
- Ziurgabetasunarena.

11. Odol-plasma:

- Odol-gazura da, gauza berbera alegia.
- Modu artifizialean lortzen den hematite-kontzentratu bat da.
- Odol-bolumen osoaren % 10-12 da.
- Aurreko guztia faltsua da.

12. Funtzio hauetako zein EZ da odolaren eginkizuna?

- Nutrizio-substantziak garraiatzea ehunetara.
- Hemostasia.
- Azala iragaizgaiztea.
- Gorputzaren tenperatura erregulatzea.

13. Plaketei dagokienez, baieztapen hauetako zein da FALTSUA?
- Ez dute nukleorik.
 - Leukozito polimorfonuklearren etenduratik sortzen dira.
 - 2-5 μm bitarteko diametroa dute.
 - Odol-hodietako pareta kaltetuetan atxikitzen dira.
14. Baieztapen hauetako zein da EGIA?
- Koagulazio-faktoreak nagusiki pankrean sintetizatzen diren zenbait proteina dira.
 - Fibrina proteina plasmatico bat da, tronbinarekin kontaktuan fibrinogeno bihurtzen dena.
 - K bitamina beharrezkoa da koagulazio-faktore batzuk sintetizatzeke.
 - Aurreko guztia faltsua da.
15. Honela lortuko da hartutako immunitate intentsu, aktibo, berantiar, iraunkor eta espezifiko bat:
- Gaixotasuna modu egokian tratatuz.
 - Txertoak emanez.
 - Serumak edo immunoglobulinak emanez.
 - Kortikoideak emanez.
16. Baieztapen hauetako zein da EGIA?
- Animalia immunogai batean erantzun immunitario bat eragin dezakeen agenteari antígeno deritzo.
 - Epitopoa antígeno batek ezagutzen duen egitura kimiko espezifikoa da.
 - Immunitate zelularra antigorputzek bideratutako erantzun immunitario espezifikoa da.
 - Immunitate humoralak T linfozitoek bideratutako moldaerazko erantzun immunitarioa da.
17. Gernu-lagin batean, usain hauetako zeinek du berezko erlazioa gernu-infekzio posible batekin?
- Usain fekaloida.
 - Kirats- edo amoniako-usaina.
 - Fruta- edo azetona-usaina.
 - Alkohol-usaina.
18. Gernuaren pH-a:
- Gernuko glukosaren hidrolisi entzimatikoaren puntua adierazten du.
 - 4,8 eta 7,4 artekoa izan ohi da.
 - Odolekoaren berdina da une oro.
 - Konstantea da egun osoan zehar

19. Gernu-jalkinean hematieak agertzea patologikotzat hartzen da gutxieneko balio honetatik aurrera:
- Eremuko 2-3 hematie 40 handipenean, gizonezkoetan.
 - Eremuko 10-20 hematie 40 handipenean, emakumezkoetan.
 - Eremuko 100-200 hematie 40 handipenean, gizonezkoetan zein emakumezkoetan.
 - Inoiz ez da patologikotzat hartzen.
20. Laborategi klinikoan:
- Aztertzen diren sistema biologikoak fluidoak baino ezin dira izan.
 - Magnitude bat kualitatiboki zehaztu daitekeen propietate bat da.
 - Emaitzen berri emateko, Nazioarteko Unitate Sistemaren unitateak (SI) erabili behar dira.
 - Aurreko guztia faltsua da.
21. Substantziak bereizteko metodoei dagokienez, baieztapen hauetako zein da EGIA?
- Zentrifugagailu baten abiadura grabitatearen (g) multiplo gisa adierazten da.
 - Kromatografian, nahastura baten osagaiak, fase egonkorrean disolbatuak, abiadura desberdinetan lekualdatzen dira fase mugikor batean.
 - RNA erauzteko prozesuan, dietilpirokarbonatoa (DEPC) erribonukleasak aktibatzeke erabiltzen da.
 - Substantzia batzuen karga garbia aldatu egin daiteke elektroforesia egiteko hautatutako indargetzailearen pH-aren arabera.
22. Biologia molekularreko teknikei dagokienez:
- DNA bat klonatzeko, DNA exogeno bat, klonazio-bektore bat, zelula ostalariak, murrizte-endonukleasak eta DNA polimerasa termorresistente bat behar dira.
 - DNA birkonbinatua klonazio-bektore batez lotutako DNA exogenoa da.
 - Erretrotranskriptasa entzima bat da, kate bikoitzeko DNAtik abiatuta kate bakarreko RNA sintetiza dezakeena.
 - DNA exogenoaren molekula bat bakterio-molekula baten barnera transferitzeari transfekzio deritzo.
23. Gram tindaketari dagokionez:
- Bakterioak eta onddoak bereizteko balio du.
 - Tindaketa negatibo bat da, bakterio gram-positiboak eta gram-negatiboak bereizteko balio duena.
 - Tindaketa diferentzial bat da, koloratzaile gisa kristal morea eta kolore-finkagarri gisa lugola erabiltzen duena.
 - Mikroorganismo bizietan erabili ohi da, ez material finkatuan.

24. Onddoak identifikatzeko tekniketari:
- Kultibo-ingurunerik erabiliena Sabourauden agar glukosaduna da.
 - Onddo patogeno gehien hazkunde-tenperaturik egokiena 42 °C da.
 - Onddoen antigenoen eta/edo antigorputzen detekzio serologikoa oso diagnostiko-metodo geldia da.
 - DNA fungikoa ezin da kuantifikatu PCR bidez denbora errealean, onddoek ez dutelako DNARik.
25. Baieztapen hauetako zein da EGIA?
- Erribobirusak RNA du, DNAr gainera.
 - Birusen azido nukleikoa kate bakarrekoa da beti.
 - Kapsida egitura proteiko bat da, birusaren genoma inguratzen eta inguruetik babesten duena.
 - Birusak hazteko eta detektatzeko, zelula-kultibo primarioak erabiltzen dira beti.
26. EZ da Etika batzordearen eskumena:
- Langileei aholkua ematea esperimenterako animaliak gordeta edukitzea, zaintzea eta erabiltzea dagozkien gaiei buruz.
 - 53/2013 Errege Dekretuaren arau-hausteengatik zigorrak jartzea.
 - Indarrean dauden proiektu baimenduen jarraipena egitea.
 - Eskatutako proiektuei buruzko txostenak idaztea eta eskumena duen organoari bidaltzea.
27. Lerro odol-kideen nomenklatura-arauak hauek dira:
- Lerroak letra larriz edo letra larrien eta zenbakien konbinazio batez izendatzen dira, salbuespenak salbuespen.
 - Ez dago inoiz onartuta laburdurak erabiltzea.
 - Lerroak letra larri bidez bakarrik izendatzen dira.
 - Azpilerra barra (/) baten ondoren adierazten da, eta letra xehez bakarrik.
28. Hau da lerro odol-kideen ezaugarri garrantzitsua:
- Homozigosia.
 - Uniformetasun fenotipikoa.
 - Isogenikotasuna.
 - Egonkortasun genetikoa.
29. Lerro odol-kide edo endogamikoa:
- 20 belaunaldiz baino gehiagoz anai-arreben arteko akoplamendu etengabearen ondorioz gertatzen da.
 - Ingelesez "outbreak" deritza.
 - Belaunaldiei G1, G2, G3... deritze.
 - Aldakortasun genetikoa handia du.
30. Untxiaren ugalketari dagokionez, hau egia da:
- Ugaltzeko garaia 5 hilabeterekin hasten da, gutxi gorabehera.
 - Emea arraren kaiolara eraman behar da.
 - Ernaldia 30-32 eguneko da.
 - Guztiak egia dira.

31. Untxien ezaugarria da:
- Eskeletoa oso gogorra da.
 - Atzeko hankak ahulak dira.
 - Karraskariak dira.
 - Zekotrofia egiten dute.
32. Arratoi-andui hauetako zein EZ dira odolkideak?
- Balb/c
 - C3H
 - C57BL6
 - NMR1
33. Zer adieraz dezake jariakin gorriztak agertzeak arratoi baten begien eta muturraren inguruan?
- Pneumonia odolezkoa duela.
 - Argi gehiegiak gogaitu egiten duela.
 - Konjuntibitis bakterianoa duela.
 - Estres-faktore batek ongizatea urritu diola.
34. Adierazi zein den baieztapen FALTSUA esperimenezko animalien osasun-kontrol mikrobiologikoari dagokionez:
- Mycoplasma pulmonis* patogeno bat da, karraskariekin egindako ikerketaren emaitzetan interferentziak eragiten dituena.
 - Agente komentsalek ez dute efektu kaltegarriak, eta halakoak dira flora elkartuko organismo gehienak.
 - Esperimenezko animalien patologia asko agente zoonotikoek eragindakoak dira.
 - Badira zenbait patogeno asintomatiko ikerketaren emaitzetan interferentziak eragin ditzaketenak.
35. Animalien osasuna teknika hauen bidez bidez kontrolatu ohi da, SALBU:
- Analisi bakteriológico eta parasitológico.
 - Erradiologia.
 - Serologia.
 - Anatomia patológico.
36. Animalia immunoeskasiadunek arrisku mikrobiológico handiagoa dute. Hau da zergatia:
- Antigorputzak sortzen ez dituzten animaliak dira.
 - Digestio-funtzioak aldatuak dituzten animaliak dira.
 - Azal-babesik ez duten animaliak dira.
 - Oso azkar zahartzen diren animaliak dira.
37. Animalia definituaren kontzeptua ezaugarri hauei guztiei dagokie, SALBU:
- Osotasun genético.
 - Pisu-homogeneotasuna.
 - Kalitate mikrobiológico.
 - Estabulazio-kondizioak.

38. Hauek guztiak amaiera-puntuko irizpideak dira, SALBU:
- Odoljario larria.
 - Itxuraren aldaketa (ilea egoera txarrean, ohiz kanpoko jarrera, sabeleko hantura).
 - Pisua galtzea eta jarraian berreskuratzea.
 - Kakexia.
39. Hauek guztiak eutanasia-prozeduren betebeharrak dira, SALBU:
- Ekonomikoak.
 - Eraginkorrak.
 - Emaitzetan interferentziarik ez sortzea.
 - Eutanasia oso animalia zahartuetan bakarrik aplikatzen da.
40. Hauek guztiak animalia-heriotza baieztatzeko metodoak dira, SALBU:
- Geldirik dagoela egiaztatzea.
 - Bihotz-taupadarik ez izatea.
 - Arnasa ez hartzea.
 - Erreflexurik ez izatea.
41. Arratoiak eta saguak mantentzeko giro-baldintzarik egokienak hauek dira:
- Tenperatura, 20-24 °C; hezetasuna, % 40-70; 12 h-ko argitasun/iluntasun tarteak.
 - Tenperatura, 16-20 °C; hezetasuna, % 25; 12 h-ko argitasun/iluntasun tarteak.
 - Tenperatura, 18-22 °C; hezetasuna, % 25; 6 h-ko argitasun/iluntasun tarteak.
 - Tenperatura, 20-26 °C; hezetasuna, % 75; 6 h-ko argitasun/iluntasun tarteak.
42. Animaliategi batean, berrogeialdiko eremua:
- Kanpotik datozen animaliak hartzeko bakarrik balio du.
 - Jokaerari buruzko esperimendazioa egiteko balio du.
 - Animaliak hartzeko eta animalia gaixoak bakartzeko balio du.
 - Ekoizpen- eta hazkuntza-eremuarekin komunikatuta dago.
43. Enuntziatu hauetako zein EZ da aplikagarria 2005eko otsailaren 18ko Gizonezkoen eta Emakumezkoen Berdintasunerako 4/2005 Legean?
- Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunerako eskubidea aldarrikatzen du.
 - Sexuan oinarritutako diskriminazioa debekatzen du.
 - Berdintasuna lortzeko oinarriak ezartzen ditu.
 - Eremu publikoan bakarrik aplikatzekoa da.

44. Kulturen eta komunikabideetan berdintasuna sustatzeko neurrien artean, EZ da sartzen enuntziatu hauetako bat:

- a. Euskal herri-administrazioek, beren eskumen-eremuan, neurri egokiak hartu behar dituzte, bai sexuaren ziozko bereizkeria saihesteko, bai sustatzeko emakumeek zein gizonen parte hartzeko aukera eta partaidetza orekatua izan dezatela Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan izaten diren kultura-jardueren guztietan.
- b. Euskal herri-administrazioek ez dute oztopatuko emakumeek gizonen berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten kultura-jarduerarik antolatzea eta egikaritzea gune publikoetan.
- c. Kultura-jardueraren batean –hor sartuta jai kutsukoak, artistikoak, kirolekoak, eta euskararen normalkuntzaren arlokoak– sexuaren ziozko bereizkeria egiten bada, euskal herri-administrazioek ezin izango diote jardueraren horri inolako laguntzarik eman, edo administrazio horien ordezkariak ezin izango dute jarduerotik administrazioaren ordezkari gisa parte hartu.
- d. Euskal herri-administrazioek neurri egokiak hartu behar dituzte kirol-modalitate guztietan emakumeeketa gizonen tratua eta aukera-berdintasuna izango dutela bermatzeko.

45. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako defendatzailea izatea EZ da bateraezina honako kargu hauekin:

- a. Herri-hauteskunde bidez hautatzen diren mandatu ordezkari guztiekin.
- b. Izendapen libreko kargu politiko guztiekin.
- c. Alderdi politiko, sindikatu edo enpresa-elkartebateko kide izatearekin.
- d. Gizonezkoa izatearekin.

46. "Euskal herri-administrazioetako langileen gaikuntza" artikulua honela dio:

- a. Euskal herri-administrazioek neurri egokiak hartu behar dituzte beren langileei emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan oinarritutako prestakuntza mailakatu eta iraunkorra eskaintzeko. Izan ere, horrela, lege honetan biltzen diren xedapenak beteko dira eta, gainera, genero-ikuspegia administrazio-jardunean benetan integratzen dela bermatuko.
- b. Enplegu publikora sartzeko hautapen-prozesuengaien artean, euskal herri-administrazioek emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioari eta horrek administrazio-jardueran duen aplikazioari dagozkion edukiak sartuko dituzte.
- c. 1. enuntziatua zein 2.a sartuta daude artikuluan.
- d. Enuntziatuetako bat ere ez dago sartuta "Euskal herri-administrazioetako langileen gaikuntza" artikuluan.


47. Aukeratu ezazu zein den zure ustez egoerarik egokiena animaliak edukitzeko.
- Saiakuntzaren amaierara arte elkarrekin edukitako animalien taldea.
 - Azterketa bitartean bakartutako animalia, emaitzak hobeto egiaztatu ahal izateko.
 - Hiru arratoi eme beren umeeekin titia kendu arte.
 - Bost arratoi eme ar batekin, ugaltze-prozesua azkartzeko.
48. Normalean, berrogeialdi-gelaxketan presio diferentziala:
- Aldameneko geletakoaren berdina izan behar du.
 - Barnean dauzkan animalia moten arabera izango da.
 - Aldameneko geletakoa baino handiagoa izan behar du.
 - Aldameneko geletakoa baino txikiagoa izan behar du.
49. Zerk eragiten du karraskarien umeen "eraztun-isatsa" izeneko fenomenoak?
- Elikadura txarra.
 - Gelako hezetasunaren bat-bateko jaitsiera.
 - Tenperaturaren bat-bateko aldaketa.
 - Animalia horien isatseko markatze txarra.
50. Faktore hauetako zeinek du eraginik handiena erritmo biologikoen sinkronizazioan?
- Airearen hezetasun erlatiboa.
 - Fitoestrogenoz aberatsa den janaria.
 - Kaleko euria.
 - Argiztapena.

ERRESERBAKO GALDERAK

51. Baieztapen hauetako zein da EGIA?
- pH-a zuzenean neurtzen da espektrofotometroarekin.
 - Azido-base adierazleak substantzia batzuk dira, zeinek, kolorea aldatuz, adierazten baitute sartuta dauden disoluzioan dentsitate-aldaketa bat gertatu dela.
 - Odoleko pH-aren eta gasen analizatzaile automatikoak oso erabilgarriak dira odoleko azido-base alterazioak sailkatzeko eta tratatu ahal izateko.
 - Odoleko gasak ezin dira neurtu odolean.



52. Hau da animaliekiko esperimentazioaren hiru oinarrien printzipioa (gaztelaniaz "Hiru Erreen" printzipioa deitua):
- Animalia-kopurua murriztea, ingurumena errespetatzea eta azkar jardutea.
 - Zurruna izatea legea betetzean, esperimentuak berregituratzea eta agertzen diren zalantzak ebaztea.
 - Animalia-kopurua murriztea, animalien erabilera ordeztea eta teknikak fintzea.
 - Esperimentuak erreproduzitzea, animalia-espezie baten ordez beste bat erabiltzea eta legea betetzea.
53. Erretikulozitoak:
- Leukozito erretikularrak dira.
 - Makrofagoen forma erretikularrak dira.
 - Hematien forma gazteak dira.
 - Plaketen aitzindari diren odol-zelulak dira.
54. Hauek guztiak animaliak edukitzeko kaiolen ezaugarriak dira, SALBU:
- Animalia-espeziera egokitutako tamainakoak eta aireztatuak.
 - Seguruak eta erosoak.
 - Material metaliko batez eraikiak, esterilizatu ahal izateko.
 - Ura eta janaria erraz eskuratzeko modukoak.
55. Baieztapen hauetako zein da FALTSUA?
- Gernu-jalkinean kristalak ager daitezke.
 - Proteinuria gibeledko gaixotasun baten adierazgarria da.
 - Gernuan urobilinogeno gehiegi egotea gaixotasun hepatiko edo hematologikoen adierazgarria da.
 - Gernu-zerrenda erreaktiboarekin, pH-a, glukosa, proteinak, gorputz zetonikoak eta beste parametro biokimiko batzuk neur daitezke.

56. Urrutitik zer aztertu behar dugu animalia batean, ebaluazio on bat egiteko balioko diguna?
- Intziriak.
 - Jokaera eta itxura.
 - Eragindako jokaera.
 - Zeinu klinikoak.
57. EZ da gaixotasun infekziosoak zuzenean transmititzeko mekanismo bat:
- Sexu-harremanen bidezkoa.
 - Artropodoen ziztada.
 - Plazentan zeharreko kontaktua.
 - Intrapartum kutsapena.
58. Piktograma honek adierazten du substantzia honelakoa dela:
- Kaltegarria.
 - Korrosiboa.
 - Narritagarria.
 - Toxikoa.
- 
59. Karraskarien sexu-jokaera:
- Tenperaturak eta fotoperiodoak ez dute inoiz eragiten sexu-jokaeran.
 - Arrak kanpo-faktoreekiko sentikorragoak dira.
 - Emeak poliestrikoak izaten dira.
 - Emetan, ziklo estralak ez du inoiz kontrolatzen sexu-jokaera.
60. Lixibaren zer kontzentrazio komeni da gainazalak desinfektatzeko/deskontaminatzeko?
- % 5
 - % 10
 - % 15
 - % 20

